

Noaua!!

www.noaua.com



EA eta EAJ-PNV adostasunera iritsi dira



Lokalak, gazteen aterpe

telefoniko



Eskaintza berria

✓ Depilazio iraunkorra

✓ Radiofrekuentziaren

bidez gaztetze tratamendua

Zubiaurrenea 4, USURBIL

☎ 943 361 951

ERRETEGIA

ARRATZAIN

TOLARE-SAGARDOTEGIA



27an irekitzen dugu. Egunero irekia.
arratzain@telefonica.net

Arratzain Zahar Baserria · Telf: 943 36 66 63 · 20170 USURBIL



Lehiaketa

"Egizu lo" liburua eta diskoa
muxu-truk eskuratu nahi al dituzu?
Oso erraza da. Marrazki bat egin eta
NOAUA!ra ekarri edo postaz bidali.

Partehartzaile guztien artean
egingo dugu zozketa.

Animo eta zorte on!

Partehartzeko azken eguna:
urtarrilak 28.



Bidali erantzuna e-mailez erredakzioa@noaua.com.
Postaz Bordaberri 3 Eguzkitzaldea -20170 USURBIL (Gipuzkoa).

Badok Amairu !!

Iban Salsamendi: "Amaren ondoan ari naiz ikasten oraindik"

Bartzelona eta Donostiako sukalde ezberdinetan ikasle izandakoa, Patrín dago orain sukaldari, eta bere amaren ondoan oraindik ikasten ari dela esan digu.

1. **JAKIRIK GOGOKOENA**
Esnekiak, artzai-gazta esaterako.
2. **OHITURA TXARREN BAT**
Lana. Txikitatik irakasten duguten ohitura txarra da, gainera.
3. **ZER GORDETZEN DUZU BETI SAKELAN?**
Etxeko giltzak.
4. **ZERTAN BERPIZTUKO ZINATEKE?**
Hori ezin da egin.

5. **ZERI DIOZU BELDURRA?**
Jakin gabe, hobe.
6. **MIRESTEN DUZUN PERTSONA.**
Aiton-amonak.
7. **EZIN ZAITEZKE BIZI...**
Denbora gabe.
8. **EGINDAKO EROKERIA HANDIENA**
Garaian jakin beharrekoa ez demostratzea.
9. **LIBURU BAT**
"La creatividad en la cocina vasca, 95-05", Pepe Barrenarena.
10. **FILM BAT**
"Alien"en azkeneko emanaldia, bere mamiagatik, ezezaguna aztertu eta iren-



tsi nahi hori...

11. **LEKU BAT**
Usurbil.
12. **HERRIKO LEKURIK EDERRENA**
Joxe Martinen enparantza.
13. **URTARO BAT**
Denak berdin maite ditut.

Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Tlf.: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehenkaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkari koordinatoria: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zaloa Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkideztza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

KRONISTAK KALEJIRAN _____ **6. OR.**

LOKALAK, GAZTEEN BILGUNE BERRIAK _____ **8. OR.**

Usurbilen lokal huts asko dago. Horietako batzuk gazteen bilgune bilakatu dira. Guztira, zazpi bat dira gazteen aterpe bihurtu direnak.



DANBOR FESTA UDARREGIN _____ **10. OR.**

OSTEGUNEAN, HITZALDIA SUTEGIN _____ **11. OR.**

UDAL AKORDIOA _____ **12. OR.**

Akordiora iritsi dira EA eta EAJ-PNV alderdiak. Era honetan, udal gobernuak gehiago osoz egingo du lan legealdia amaitu bitartean.



JOXEAN GORGOJOREN ERAKUSKETA _____ **14. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Zutabea !!



ARITZ GORRITI

Akabo!

Hemen nago zuri begira. Zure jardunak gris itxurako gortina bat sorrarazten du. Gortina horrek indarra galtzen du, gorantz doan heinean, desagertu arte. Haizeak nondik jo, harantz doa, zuzenean edonor edota edozer kaltetzerara.

Egia esatea nahi al duzu? Kirats nazkagarria duzu. Kaltegarria zara. Gizarteko soberakina. Gure artean egoteko beharra sortzen duzu. Nik ez dizut inolako errespeturik. Bai ordea, zu sortu eta hor egotea ahalbidetzen zaitugunoi. Zaletu ugari izan duzu atzetik (artean ni neu); eta orain, zer? Konturatu al zara nola jokatu duzun zuk gurekin? Gutaz ederki asko baliatu zara.

Egia esanda, zutaz ere ederki baliatu dira. Kalean zurekin nahi dutena egiteko ohartarazi digute. Leku askotan, ordea, atek itxi dizkizute. Neurri gogorak hartu dituzte zure aurka. Beno ez, zure zaletuen aurka, gure aurka. Zaletu askok orain, zu eta zure lagun taldearen aurkako borrokari ekin diote. Behartuta gehienak. Horregatik deritzot gogorregia dela zure aurka hartu duten erabakia. Inor ezin da behartu zurekin izandako

hartu emana haustera. Norberak zuregandik ihes egiteko eta adio esateko gai izan behar du, askotan zaila edota ezinezkoa izan arren.

Desagertzeraz zigortu zaituztela dirudi. Gure artetik zu eta zure lagun kopurua gutxitzen doala dirudi. Baina zigortzeaz ari naizela, zure kontura irabazi ekonomikoak izan nahi eta lortu dituzten horiek, hitz batean esanda, zu sortu zaituztenek, zuk baino zigor handiagoa merezi dute. Hain zuzen, haiek orain artean bezala jarraitu ahal izango dute. Eta hori da okerreana.

Adiorik ezin dizut esan, oraindik leku askotan topo egingo dugulako. Gaur arte, ederki asko jakin duzu nor naizen. Baita nik zu aspaldidanik. Baina lasai, hemendik aurrera sekula (hala espero dut behintzat) ezingo gara eta lagun izan. Zuk zure bidetik ahal duzun neurrian, bizi iraun dezazula, zuri ez baitizut ezer txarrik opa. Nik ere hala egingo dut.

Hala esan omen zion erretzaile porrokatua zen batek eskutan piztear zuen zigarroari. Piztu zuen zigarroa, baina segituan mahai gainean zuen hautsontzira bota zuen. Ez zuen sekula gehiago erre.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Jose Piñas - Aritz Gorriti

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA.

ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA,

NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: otsailak 3. Idatzia ekartzeko azken eguna: urtarrilak 28.

ALBISTEAK EDIZIO JARRAITUAN ALDIZKARIA ON LINE INKERTAK FONDUAK POSTA

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

Zendoia



Kale Nagusia 35 - 943 3/ 40 71

Zer diyo? !!

Agurtzane Solaberrieta

Bide Eginez

Espainiako botere judizialaren tresna den Audientzia Nazionalak Batasunaren jarduna eteteko eta BECeko ekitaldia debekatzeko hartutako erabakia azken asteotan balizko konponbide demokratikoaren prozesuari begira ematen ari den pultsu erraldoiaren baitan kokatu behar da.

Ez gaude inolaz ere eztabaida juridiko baten aurrean. Arazoa politikoa da eta sakontasun handikoa. Herri honetan markoen agorpena guztiok onartzen dugunean, aldaketa politikoa etor daitekeenean, eta, gehienak lanean ari garenean gatazkari irtenbide demokratiko bat emateko, Herri honek beste eraso bat jasan du.

Herri honetan eztabaida eta pultsu politikoa bi sektoreen artean ematen da: gatazka gainditzearen alde daudenen eta eskenatoki berri bat oztopatu nahi dutenen artean. Bigarren horretan kokatzen da Alderdi Popularra eta bere "fitxa guztiak" aktibatzea eta erretzea erabaki du gatazka gainditzeko bidean lanean ari direnen kontra. Une honetan PSOEek erabaki batzuk hartu dituen arren, Itun Antiterroristarekiko urrats batzuk egin baditu ere, eta Zapaterok adierazpen txukun batzuk egin baditu ere, nabarmantzekoa da ez duela gaitasunik edota borondaterik PPren pressing hori gainditzeko.

Kontuan izan behar da edozein prozesu politikotan une berezi eta kon-

promiso batzuetatik zenbat eta gertuago egon, hori guztia baldintzatzeko presio eta sabotaje estrategiak gero eta handiagoak izan ohi direla. Hala gertatu da, esaterako, Irlandan eta halaxe ari da gertatzen Euskal Herrian. Prozesura gerturatu ahala, probokazioa gero eta altuagoa izango da, eta ezker abertzalearen eta herri honen kontrako erasoak etengabeak izango dira. Horregatik, une hauetan burua hotz mantentzea beharrezkoa da eta halako erasoak lasaitasunarekin eta perspektibarekin aztertzea.

Espainiako sektore atzerakoi eta faxistenek behin eta berriz saiaturiko dira Euskal Herriari demokrazia, justizia, bakea eta askatasuna ukatzen, baina saiakera guztiak alferrikakoak izango dira, jakin badakitelako herri honek bere etorkizuna libreki erabakitzeko hautua egin duela. Batasunaren ilegalizazioa da Espainiako Estatuaren porrotaren erakusgarri: Batasuna behin legez kanporatu eta birritan baliogabetu behar izan dute.

Euskal Herria bere buruaren jabe izan nahi du eta, hain zuzen, argazki hori utzi zigun BEC-ek larunbatean: Askatasun eta eskubide zibil eta politikoekin konprometituta dagoen herri bat dela eta bake prozesu bat eraikitze-ko konpromisoak hartzeko prest dagoen sektore abertzale zabala badela Euskal Herrian. Esperantzaren, askatasunaren eta justiziaren ateak ireki genituen han bildu ginen guztiok.



EAJ-PNVren jarrera azpimarratu gabe ez nuke amaitu nahi. Berriz ere Alderdien Legearen aurka dagoela esan, baina praktikan, legea betetzeko prestutasun osoa adierazi du. Elkartasun eta erantzun ekimen amankomun guztiei uko egin dio berriro Espainiako Estatuarekin lerrotatuz eta PSOERI laguntzarako eskua luzatuz.

Beti esan dugun bezala, bidea ez da erraza izango, historiak irakatsi digun bezala, ez da kosturik gabekoa izango. Baina, ezker abertzaleak eta bere kide bakoitzak badakigu egoera horiei guztiei tinko erantzun behar diegula. Baina, era berean, lasaitasunez jokatzea beharrezkoa da. Ez goaz eskenatoki zaharrak errepikatuz, ez goaz atzera egitera. Ezartzen dizkiguten oztopen gaitetik, aurrera egitera goaz, baina beti ere Bide Eginez.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

MAHUKA
 ETXEBESTE KALEA, 3 · 943 361 108

Umen aurkituko duzu
 gizon eta emakumezkoen
MODAKO ARROPA

TXOKOALDE

IMANOL GOENAGA

Astero, astero



Kaixo auzotar agurgarriok. Hemen gara berriz ere auzoko kontuetaz hitzegiteko asmotan. Jakingo duzue dagoeneko, NOAUA! (gure herriko aldizkari maitea) hamaboskaria izatetik astekari izatera pasa dela. Dena den kronistei ez digute maiztasuna areagotu eta hamabostean behin idazten jarraituko dugu. Hasiera batean denei burutik pasa zitzaigun galdera: "astero zertaz hitz egingo dugu?". Baina ez, erritmo berean jarraituko dugu.

Aldaketa bakarra "Kalejiran" atalaren formatu aldaketa izango da eta lau orrialde izatetik bi izatera pasa da. Lanak ere errazago egingo ditugu horrela! Dena den, honek ez du esan nahi auzoko berriak kontatzeko hamabost egun itxaron behar dugunik. Edozer gauza jartzeko Noaua!ra bertara zuzendu eta gustura egingo diote beste txokoren bat.

Bestetik esan nahi dut, auzo bakoitzean lau izen eta aurpegik idazten badugu ere, edozeinek izan dezakeela notizia. Hau da norbaitek zerbait esatekorik badu ez geratzeko gogo horrekin, auzoak oso txikiak dira eta denen berri badugu, beraz, kalean abisatu edo Noaua! bertara ere jo dezakezue. Gustora hartzen ditugu zer esanak eta zer erakutsiak ere. Akaso notizia bat ez bada ere, auzoko argazki politen bat daukazue edo aspaldiko pasarteren bat. Ea ba denen arten txoko honi probetxua ateratzen diogun eta gure auzoaren kontu zaharrak eta berriak beste guztiei erakusten dizkiegun.

KALEBERRI

ANA URDANGARIN

Kapueira, kapueira!



Urtea gogor hasi dugu eh! Urte berri guztien hasieran egiten diren promesetako bat ote! Auskalo, espero ezetz. Nahiz nire auzoko istorioa ez izan, ezin kapueira alde batera utzi, izan ere orain dela 4 hilabete hasi nintzen kurtsilo bat ematen Donostian eta ikaragarria iruditzen zait. Nire historia hau lehenago hasia dut ordea, hiru urte atzera egin behar horretarako; izan ere, duela 3 urte Brasileria bidaiatu nuen eta bertan ireki zitzaidan bertako borroka-dantzarekin nahastua den honi ekiteko irrika. Egia esan brasildar askorentzat bizi modu bat da, egun guztia pasa dezakete kapueira egiten; ikaragarria benetan. Beraientzat sinbolikoki asko da kapueira; izan ere, honen sorreretara jotzen badugu ikusiko dugu ez dela borroka bat bakarrik. Brasilen esklabutza garaian sorturiko dantza eta borrokaren fusio batean sortu zela esan daiteke, bi estilotan bana ditzakegu: Kapueira Universal eta Kapueira Angola, azken hau da zaharrenetarikoa. Biak oso ezberdinak dira. Unibersalean pirueta asko eta akrobazia asko egiten dira eta Angolan aldiz askozaz ere maltzurrago jokatu behar duzu, hanka, esku eta burua erabiliz.

Beraz, norbaitek zer edo zer gehiago jakin nahi badu jakin dezala Santueneko lokal berrian izango direla ikastaro hauek otsailaren 3tik aurrera ostiral iluntzean 18:30etik 20:00ak arte eta Fabio izeneko brasildarra izango delarik irakaslea.

Ezin da hobeki adierazi, beraz probatu eta ikusiko duzu.

KALEZAR

AINARA URIBE

Giro hotza daukagu herrian

Epa! Lehendabizi Santuenekoei zorionak egiten ari zareten auzo-lanarengatik, badirudi zonalde hori piztu egin dela, horrela segi eta jendekak parte hartu dezala, lanean eta antolatzen diren ekintzetan. Zorionak!

Gai honekin jarraituz, aurreko alean, Axier eta Lurdesek proposamen bat luzatu zuten herritarrei zuzendua, nik ere gonbidapenean insinatu nahiko nuke, ze benetan badirudi herri hau hilda dagoela. Eta hori esatean arlo guztik hartzen ditut kontuan, politika, kultura, euskara... Badirudi ondo pasatzea, lana eta etxebizitza asuntiak direla gazteei axola zaizkigun gauza bakarrak, hori da kalean ikusten dena behintzat. Beraz neska mutilak, zahar eta gazte atera kalera, gauza asko egin behar dira eta herrian. Ikusten duzue, lana badago, arlo guztietan eta adin guztietako edonorentzat, beraz aurrera eta animo!

Aurreko alean izan genuen proposamenaren lehenengo helburu zehatza jaietako maskota izango da baina, akaso Inauteriak izan daitezke lehenengo erronka ezta? Nik hemendik animatu nahi zaituztet herritar guztiak mozorrotzera. Ea denen ahaleginekin festa polit bat egiten dugun.

Ohartxo bat. Kalezarren sinadura bilketa egiten ari dira Harane futbol zelaiko lokal bat eskuratzeko. Auzoko taldearen funtzionamendurako izango litzateke: dantzarako entsaioak, bilerrak, materiala gordetzeko...



ATXEGALDE

AINARA BORDAGARAI

Auzoan aparkalekurik gabe

Noaua'n idazten dudana lehenengo aldi honetan gure auzoan dagoen arazoaz hitz egin nahi dizuet. Jadanik ohartuko zineten, gure auzoan autoa aparkatu nahi duenak arazo larriak izango dituela, batez ere gaueko bederatzietatik aurrera. Autoak espaloai gainean jartzen ditugu, edota edozein bazterretan, ez baitago tokirik hainbesterentzat. Hau entzutean esango duzue: "Zer dio honek? Mahaspildegina aparkaleku ederra dago eta!". Bai, ados nago horretan, baina nork uzten du autoa hor? Auzoko ausartenak esango nuke nik. Orain dela bizpahiru hilabete auzokide bati autoa ostu zioten, eta lapurrak inguruan dabiltzala era jabetu gara guztiok.

Honekin guztiarekin, autoak gaizki aparkatuak egotea normala dela ulertu beharra dago, baina arazo honi irtenbide bat bilatu behar genioke, bestela, auzotar guztiok isunez gainezka bukatuko baitugu. Nik ez dakit zein izango litzatekeen irtenbiderik egokiena, ez baina aditua horretan, baina auzotar modura asko eskertuko nuke, Atxegalde auzoan aparkaleku gehiago egotea, guztiok gure autoa toki ziur batean utzi ahal izateko lasai.

Nire ikuspuntutik, arazo honi irtenbide bat aurkitu beharra dago, beste zenbait arazoaren artean, noski. Beraz, guzti hau laburbilduz, eta herritarren laguntzaz, arazo honi irtenbide azkar bat lortzea espero dugu. Besterik gabe mila esker eta ea zerbait lortzen dugun!



SANTUENEA

IÑAKI LARRAÑAGA

Frontoiaren abantailak



Herriko elkarteak aurrera doaz. Batetik elkarte eta bestetik Ibai-Ondo elkartearen ere igandean egin zuten urteroko batzarra eta noski urte berriarekin batera hasten da auzoa autoz betetzen, astebukaeraren batez ere. Noski, asmatu duzue, Aialde-berri sagardotegiak beste guztiak bezala atek ireki ditu. Poza ematen du sagardoak hainbeste jende erakartzea, ezin ukatuko dugu hori ere gure kulturaren parte dela.

Baina gure auzoak beste egun batzuk ezagutu ditu, non, sagardotegirik gabe ere asteburutan bazterrak autoz betetzen ziren. Eskubaloia genuela edo baita areto futbola ere. Askotan izaten genuen bertan jokatzeko arazoa, beste batzuek aurreratzen zitzaizkigulako eta zenbat aldiz adin askotako jendearen artean futbol partidak izaten genituen, kontua jolastea izaten baitzen.

Pentsatuko duzue, gure Iñaki ze "txapa" sartzen ari da! Agian bai baina, oraingo egoerak pena ematen didala esaten badizute, batek baino gehiagok nik bezala pentsatuko du. Eskubaloi pista ikusteak tristura ematen dit; umerik ez, zulo galantak... eta argia piztuta norentzat? Hainbeste jende ibiltzen al da gaueko 21:00ak arte? Nik behintzat argi daukat beste irtenbide bat eman behar zaiola, frontoiarena adibidez. Pilotan ibiltzen direnak askotan arazoak dituzte frontoi bat libre aurkitzeko eta aterpe bat edukitzeak sekulako abantaila emango lioke auzoari, horren falta badugu behintzat.

URDAIAGA

SARA LAZKANO

Ezin lasai egon



Gure auzo honek berezitasunak baditu, eta horietako bat da etxean sakabanaketa. Honek, badi-tu aspektu positiboak, hainbestetan komentatzen den bizilagunen arteko liskarren deusestatzea, esaterako. Etxeak, batetik bestera, distatzia inportantez banatuak daude, honek dakarren lasaitasun eta askatasunarekin. Baina espazio honek ekartzen ditu arazoak ere. Izan ere, azkenaldi honetan lapurretak gertatu badira herri guztian, San Estebanen eta orokorrean, etxe isolatuak agertzen diren alderdietan, hauen kopurua asko igo da. Azken aldiari sarri entzun behar izan dugu, tamalez, batek baserrian lapurretara sartu zirela jabeak kanpoan ziren bitartean, edota, are beldurgarriago, beste etxeren batean bertakoak lo zeuden bitartean sartu direla.

Ugariak dira, kotxe arraroak. Bai, ordutegi arraro batean, inoiz ikusi gabeko pertsonak okupatzen dituzten autoak. Izan ere, beste lekuetan gertatzen ez den bezala, hemen kotxe gutxi ibiltzen da, gehienak auzotarrak, eta askok sentitzen dugu nolabaiteko segurtasun falta edo erre-zeloa, etxe inguruan hauetako bat ikusten badugu, eta gehiago, gure etxebizitza ingurura begira eta inguruan bueltaka badabilta.

Eta sustoak ere ez dira txikiak izaten, norbait atea fortzatzen ari denaren soinua, jabea etxean bakarrik dagoen bitartean, atea jo eta zabaltzean susto aurpegiz begiratu eta galdera tontoak egiten dituzten gizon ezezagunak... Eta bizilaguna hain urrun izanda, zaila da lasai egotea... Eta triste da, baina azken aldi honetan zaila da norbere etxean lasai egotea.

AGINAGA


LONTXO ZUBIRIA

Agiñako indarra Euskaltelen

Txirrindulari denboraldia hasi zaigu eta lehenengo karrerak baditugu han eta hemen. Euskaldun txirrinduzaleek hain gogokoa duten Euskaltel-Euskadik ere denboraldi berriari aurpegi berriekin ekingo dio.

Oraingo arte ekipo horretan San Estebango bi anaia gorabeherak jarraitzen genituen, Joseba eta Haimar Zubeldiaren lan eta emaitzak alegia. Aurtengo nobedadea zera da: Iban Maioz ikusiko dugu pedalei eragiten laranja-kolorez jantzita. Iban Mayo bizkaitarraren ondoan azalduko zaigu Iban Maioz agiñarra.

Baten batek esango digu Iban Maioz ez dela Aginagako. Nik zera erantzuko diot: bere aita Aginagako Mapil baserrian jaio-tako Jose Luis Maioz "Exkerra" dela. Hau bera ere Tourrean lehiatua da bere garaian, eta lan txukuna egin zuen gainera. Ea gure Ibanen indarraren laguntzarekin Haimar Zubeldiak edo Iban Mayok Tourreko elastiko horia ekartzen duten Euskal Herrira.



ZUBIETA

PELLO ARANBURU

Lokala behar den bezala ez-tala

Zubietaren azken urteetako bilakaeraren beste lekuko bat dugu pilotalekua. Eta bila-kaera horren lekuko ere nahi genuen zubietarrok pilotaleku ondoko lokala ere. Zubietak ez du kirol-tako aretorik, ez kultur jardueretako gela itxuro-sorik —ezta ziztrinik ere—, ez biltzeko txoko, ez zulo, ezta beste inolako hala-moduzko zirrikitu zikinik. Horregatik nahi genuen lokal hori, pilotaleku ondoko lokala.

Lokala egin egin zuten. Baina nola. Hala nola. Eta gero etorri dira kontuak. Batetik, eta dirudienez, legeztatze arazoak. Eta bestetik, egituraren egoera kaskarra... Azkenik eta ezin bestean barruko lehengo pisuko zoria txikitzen hasi dira —legeztatze arazoak, eta agerian geratu da zori horren ahuldadea —eta zuta-been flakezia—.

Oraindik ez dakigu nolako amaiera emango dioten arazo honi Donostiako eta Usurbilgo udalek. Diru partida batzuk ba omen daude... Lehen gaizki egindakoa konponduko balute, gaitzerdi. Baina seguritate kontuek lehentasuna beharko lukete. Ez dira txantxetakoak.

Eta Zubietak behar beharrezko du leku hori. Pilotarientzako, dantzarako, biltzeko, elkarrekin egoteko, elkarrekin egiteko... Arrainak ura bezala, txoriak habia bezala, gure koadrilak taberna bezala...



“Neguan aterpe bat asko eskertzen da”

Herrian hutsik zeuden lokalak gazte askoren bilgune bilakatu dira

Elkarreentzako sistema antzekoa erabiliz, baina egongela itxurarekin, tabernen alternatiba bilakatu diren txokok ugalduta egin dira Usurbilen. Neguan bero eta udan fresko, hori diote beraiek. “Etxean bezala gaude: pelikulak ikusi, bideojokoetan aritu edo lasai hitz egiteko txokoa daukagu; baina etxe batean lagun guztiak biltzea ezinezkoa litzateke, eta neguan aterpe bat asko eskertzen da”. Jende askoren jakin-mina piztu du gai honek. Hori dela eta, herriko hiru lokaletara jo dugu eta bertako gazteek euren atea zabaltzeko ditzaguten euren lokalak pixka bat gehiago ezagutu ditzagun.



GAZTE KOADRILA BAKOITZAK BERE TXOKOA SORTU DU.

LOKAL BATEKO GAZTEAK

“Tabernetan egunero ibiltzea garestia zen guretzat eta biltzeko toki baten beharra ikusi genuen”

Lokaletan biltzeak bere arrazoiak dituela aldarrikatu dute denek. Tabernetan biltzearen alternatiba

bezala ikusten baitute bertako kideek. Gazteentzat ezer ez dagoela eta koadrila bakoitzak bere txokoa sortu du, eta bertan biltzen dira kaleko hotza saihestearren. “Tabernetan egunero ibiltzea garestia zen guretzat, eta biltzeko toki baten beharra ikusi genuen” diote lokal bateko kideek. “Aterpe bat da neguan, eta lagunekin geratzeko toki finkoa. Hona azaldu

eta badakizu norbait egongo dela” argitzen dute beste lokal batekoek. “Elkarte baten antzeko zerbait” bezala definitzen dute eta gutxienez kalean bihurrikeriak egiten ez daudela esaten dute, ez dutela iskanbilarik sortzen eta antolatzen dituzten jarduerekin ematen dutela denbora.

NEREA KORTA _____

Lokal barruko eta

lokal arteko jarduerak antolatzen dituzte

Usurbilen tankera honetako hainbat bilgune daude. Lokal barruko eta lokal arteko jarduerak antolatzen dituzte. Porra ezberdinak, pelikula emanaldiak, afariak, mendi martxak, mus txapelketak, pilota partiduak...

Badute ez aspertzeko zereginik. “Play-Stationean lokalarteko futbol txapelketa egiten dugu; taldeka apuntatuta, lokal ezberdinetako jen-

dea biltzen gara txandaka torneoa burutzeko. Irabazleek saria jasotzen dute. Porra bat ere egiten dugu, liga-koa. Hemen ere jende dezente hartzen du parte, ez bakarrik lokalekoak garenak” argitu dute lokal batean. Dioten bezala, hiru lokal hauen artean, eta lokaletakoak ez diren jendea ere bilduta, futbol txapelketa konplexua antolatzen dute bideojokoan bidez.



LOKAL ARTEKO LIGAKKAK JOKATZEN DIRA.

Lokal gehienak insonorizatuta, badaezpada

Hamasei pertsona gara lokalekoak, baina kanpoko jendea ere etortzen da. Ez gara itxiak zentzu horretan. Antolatutako jarduerekin ere besteeenganako harremana lantzen dugu”, kontatu digute lokal hauetako batean, baina besteetan ere antzekoa gertatzen da. Hainbeste jende areto batean bilduta egoteak zarata eragin dezake, eta horrek bizilagunekin iskanbilak sortuko dituela pentsatzea ohikoa da, baina errealitatea, sarritan, ezberdina da: “Hasieran arazoak izan genituen, batez ere soinuagatik, baina orain ez”, aitortu digute lokal hauetako kide batzuk.



LOKAL BATEAN, SABAIA METRO BAT BEHERAGO JEITSI ETA GERO

KOLTZOIZ BETE DUTE.

LOKALAK ETA BIZILAGUNAK

“Noizbait esan digute apur bat isilago ibiltzeko, baina ez dugu bizilagunekin arazorik izan”

Beste hau diote bisitatu dugun beste lokal batekoek: “Noizbait esan digute

apur bat isilago ibiltzeko, baina ez dugu arazorik izan, harreman ona dugu beraiekin. Gainera, duela urtebete intsonorizatzen izugarriko lanak hartu genituen, eta oso ondo geratu da”. Izan ere, lokal ezberdinetan insonorizazio metodo antzekoa erabili dute, sabaia faltsua erabiliz: “Metro bat beheragoko sabaia egin genuen eta

gero koltxoiz bete. Horrela ez dugu arazorik izan bizilagunekin”.

Gazte-lokalak Usurbilen

Kaleberrin	_____	5
Aginagan	_____	1
Atxegalden	_____	1

Barran ateratzen duten diruarekin alokairua pagatzen dute

Lokaletan biltzen badira, tabernetan ez dira maiz ibiliko. Gai honetaz galde egin diegu eta batzuen eta besteen erantzuna parekoa da: “Lokaletan gelditzen gara, eta gero plana bertan egiten dugu tabernetara joateko; baina batez ere asteburuetan joaten gara, hemen jatekoa eta edatekoa badaukagu eta”. Tabernetan biltzeak kontsumitzera behartzen du, eta prezio altuetan gainera. Autogestioaren bidez, lokaleko barran bildutakoarekin ordaintzen dute alokairua. Era honetan, ez dute dirurik xahutzen alokairuan eta gainera kontsumitzen dutena tabernetan baino merkeago ordaintzen dute.

“Barra moduko bat antolatu dugu janari eta edariekin, eta aldi berean talde bat arduratzen da astero garbiketa eta erosketa egiteaz. Kontsumitzen dugun janari horrekin lortzen dugu alokairurako dirua, eta kanpotik etortzen direnek ere kontsumitzen dutenez, horrek ere laguntzen du. Hilabete hasieran barran lortzen dugun dirutik zati bat lokalaren nagusiarri ematen diogu alokairua ordaintzeko”. Era berdintsuan antolatzen dira beste lokaletan ere: “Hasieran diru kopuru bat jarri genuen lehen erosketa egiteko; denakoa baino garestiago jartzen dugu janaria eta edaria eta horrekin lortzen

duguna alokairurako. Lista bat daukagu bakoitzak kontsumitzen duena apuntatzeko, eta gero ordaintzen dugu. Diruarekin ez ibiltzeagatik egiten dugu hori. Astero aldatzen ditugu garbiketa eta erosketa taldeak, denok parte har dezagun. Hor ateratuko diruarekin, alokairuaz gain, bi telebista, bi hozkailu eta kanal digitala erosi ditugu, besteak beste”.

Lokaletan biltzea ohitura bat bihurtzen ari da, eta bertako kideek ez dute nahi gaizki ulerturik egotea aurreiritzien erruz. Gazte koadrilak biltzeko tokiak dira, eurek antolatu eta kudeatutakoak, eta gustura daude horrela.

Danbor festa Udarregin

Urtero legez, San Sebastian eguneko ospakizunekin bat egin zuen Udarregi ikastolak. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleek saio ederra eskaini zuten; denak apain-apain jantzita eta adi-adi, musika zuzendariaren esanetara.

Haurrak nora, gurasoak hara. Hori dela eta, jende ugari bildu zen Agerialden zein Udarregiko patioan egin ziren danborradetan. Orri honetan dituzue urtarrilaren 19an bildu genituen hainbat argazki. Gure webgunean, noaua.com orrialdean, irudi gehiago aurkituko dituzue.



Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725

LATXA
Kutxak denda

Janari prekozinatuak
Kongelatuak
Bertako produktuak

Kale Nagusia 2, Ondald | Tel. 606 301 803

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

MIKEL IZAGIRRE
ELEKTRIZITATEA

943 365 095
607 068 111

GOIZ ARGI ETXEA 137 KALEZAR

Ostegun honetan, 18/98 auziaren inguruko hitzaldia Sutegin

Azken orduko aldaketarik ez bada, urtarrilaren 30ean hasiko da berriz ere 18/98 auziko epaiketa, hogeitazetara etenda egon eta gero. Lau egun lehenago, urtarrilak 26 osteguna, Sutegin izango da hizketan Xabier Alegria, auzipetuetako bat. Berarekin batera izango da Aitor Ibero abokatua. Agurtzane Solaberrieta eta Amagoia Mujika kazetariak gidatuko dute hitzaldia.

Auzipetuei elkartasuna adierazi auziaren, 18/98+ lan taldea osatu zen. Usurbilen ere badu ordezkari talde honek. Urtarrilaren 26ko hitzaldia antolatzeaz gain, otsailaren 18ko manifestaldirako deialdia ere egin dute. Bilboko kaleak jendez eta duintasunez

betetzeko nahia azaldu dute 18/98+ lan taldeko kideek.

Berme urraketa "larriak"

Aipatzekoa da auzi honen inguruko epaiketan berme urraketa «larriak» antzeman dituztela Euskal Herria Watch elkarte abokatuek. Katalunia, Madril, Alemania eta Italiako 20 bat abokatu Madrilan izan dira azken asteotan begirale gisa, eta bertan ikusitakoen irakurketa plazaratu zuten Jose Manuel Hernando eta Eduardo Nestor Soares abokatuek, berriki, Donostian. Euskal Herrian Ideien Kriminalizazioaren Aurkako Juristen Nazioarteko Batzordearen izenean, prozesua baliogabetzeko eskatu zuten Hernandok eta Soaresek.



IRUDIAN HIZLARIETAKO BAT,
XABIER ALEGRIA.

Noiz: urtarrilak 26, osteguna,
20:00etan, Sutegiko auditorioan
Hizlariak: Xabier Alegria, Aitor Ibero.
Hitzaldia gidatuko duten kazetariak:
Amagoia Mujika, Agurtzane Solaberrieta

Kontribuzioaren gaineko zergan, familia ugariarentzat hobariak

2006 urteko kontribuzioan, edo teknikoki esanda hiri izaerako ondasun higiezinaren gaineko zergan, familia ugariarentzat hobariak izango dira.

Usurbilgo Udalak 2006 urtean indarrean egongo diren zerga, tasa, prezio publiko eta kontribuzioen ordenantza fiskalak onartu ditu. Hauen tartean, hiri izaerako ondasun higiezinaren gaineko zerga edo kontribuzioari dagokiona. 2005

urtean bezala, familia ugariarentzat hobaria onartu da. Interesatuak informazioa udaletxeko zerga-bilketara sailean eska dezakete.

Hobariaz baliatzeko baldintza formalak

Aplikazioaren zerga aldiari dagokion sortze egunean familia ugariaren titular izaera daukaten hiri ondasun higiezinaren gaineko Zergaren subjektu pasiboak dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

-Interesdunaren eskabidea, udalak erraztuko du eredu.

-Familia ugariaren tituluaren fotokopia konpultsatua.

-Udalak urtarrilaren 1ean familia unitateko kideak erroldatuak daudela egiaztatuko du.

Otsailaren 28a baino lehen egin behar da hobari eskaera

Hobariaren eskaera 2006ko otsailaren 28a baino lehen egin beharko da.

txirriStra
KONTSEJU ZAHARRA TS
943 300 400
pintxoak
ogitartekoak
platea konbinatuak
TABERNA

Larazaintza
gortak
URTINEA
urtinea@euskalnet.net
Larreak
karroak
Landareak
San Esteban
943 360 055
943 366 054-fax

Ezberdintasunak alde batera utzi eta udal akordioa adostu dute EA eta EAJ-PNV alderdiek

Urtarrilaren 19an, ezusteko prentsa-agiria jaso genuen. EA eta EAJ-PNV alderdiek legealdia amaitu bitarteko udal hitzarmena sinatu zutela zioen agiriak (noaua.com webgunean da agiria bere osotasunean). Akordioak udal gobernuari egonkortasuna emango diola diote bi alderdiek.

Hitzarmen honekin aurrerapauso berri bat eman dela diote sinatzaileek. Luisuari Ormaetxea alkatea eta EAren ordezkaria eta Lourdes Jauregiberri, EAJ-PNVko Uri Buru Batzarreko lehendakaria izan dira akordiora iritsi diren protagonistak. Prentsa-agiriak jasotzen duenez, "EA eta EAJ/PNV alderdiok Usurbilgo Udalaren gobernabilitaterako hitzarmen egonkor bat adostu dugu, legealdia bukatu arte. Hitzarmen honen helburua gure herria bideratzea da, aurrera pauso berri bat ematea da, dituen arazoak konpontze-bidean jarriaz eta elkarbizitza normalizatua berreskuratuz".

Sinatzaileek Usurbilgo identitate ezauzgarrien alde jardungo dutela diote: "gizarte ongizatea, bizitza kalitatea eta gure herriaren nortasun anitza defendatzera konprometitzen gara. Era berean, herri honen progresorako era positiboan ekarpenak egiten dituztenak defendatuko ditugu".

Manuel Michelena, PP:

"Alkatea da onuradun nagusia"

Akordioa ezagutu eta berehala, alderdi ezberdinetara jo genuen iritzia eske. Luze zabal jaso ditugu EA, EAJ-PNV eta UHLren hitzak. PSE-EE alderdiko Amaya Goyaran Mexikon da eta ezin izan dugu berarekin harremanetan jarri.

Alderdi Popularreko Manuel Michelena zinegotziaren ustez, akordioak ez du berritasunik ekarriko: "Usurbilgo EA eta EAJ-PNV arteko harremana ez zen Gipuzkoa mailan bi alderdiek duten hitzarmen politikaren adibide. Beraz, normaltasunera itzuli dira gauzak. Dena den,



URTARRILAREN 18AN SINATUZEN AKORDIOA.

akordio honek ez du berritasunik ekarriko". Hala ere, PPko zinegotzi honen esanetan "alkatea izango da onuradun nagusia".

Akordioa ez duela ezustean harrapatu adierazi du Michelena. Halaber, ez du aldaketa handirik espero. Ez behintzat udal gobernu eta oposizio alderdien arteko harremanari dagokionez.

IMANOL UBEDA

Lourdes Jauregiberri, EAJ-PNVko kidea:

"Hitzarmen honek udal gobernu indartu eta sendotuko du"

NOAUA! Oposizioa utzi eta udal gobernu hartuko duzue parte. Honek lanean aritzeko beste modu bat eskatuko dizue.

Lourdes Jauregiberri. Dakizun bezala, udal hitzarmen bat sinatzera iritsi gara Eusko Alderdi Jeltzalea eta Eusko Alkartasuna Usurbilgo Udaletxean. Orain dela hiru urte posible izan ez zena, azkeneko saiakera gauzatu izan da.

Hitzarmen honek udal gobernu indartu eta sendotuko du. Gobernu gehiengo handi batekin jartzen du eta ez orain arte egon den bezala gutxiengo batean. Horren ondorioak gure herriaren mesedetarako izan daitezke da gure nahia.

N. Bi alderdien zuzendaritzek zerikusirik izan dute akordioan ala herri mailan gauzatu al da?

L. J. Akordio hau herri mailan landua izan da, exekutiben oneritziarekin noski.

N. Hitzarmen honen bidez, EAJ-PNV

udal gobernuan barneratuko da. Alderdi bakoitzak zein batzorde edo arlo kudeatuko ditu?

L. J. Akordio honek dudarik gabe lana gehituko digu. Eusko Alderdi Jeltzalea hiru komisiotaz arduratuko da. Obra eta zerbitzuak, Ongizatea eta Giza Eskubideen batzordea.

N. Kanpotik begira, oso urruti zeundeten bi alderdiak 2003ko udaberrian. Akaso 2005eko udal aurrekontuen inguruko akordioak argitu zuen orain sinatu berri duzuen hitzarmenaren bidea?

L. J. 2003 urtean gure bi exekutibak Usurbilerako jarritako baldintzak ez ziren onartuak izan eta ondorioa guztiok ikusi genuen, bi alderdiak bananduak aurkeztu ginen udal hauteskundeetara.

Eusko Alderdi Jeltzalearen iritziz, eta hau jakina da gure zuzendaritzak horrela adierazi duelako behin baino gehiagotan, bi alderdiok elkarrekin joatea da helburua.

Abertzaletasunaren ikuspegitik eta erakunde guztietan horrela funtzionatzen dugula oinarrituta (Eusko Jaurlaritza, Diputazioa eta udal gehiengotik), bidezkoa izango litzaiteke datozen hauteskundeetan elkarrekin joatea. Baina oraindik hiru gure iritzia berririk ez da.

N. Noiz onartu daitezke 2006ko udal aurrekontuak?

L. J. Aurrekontuei buruz, alkatearen ardura da eta berari dagokio noiz aurkeztuko dituen esatea. Dudarik gabe gure irizpideak mantenduko ditugu. Elkarlanean, elkarriketa eta negoziazio baten ondoren lortuko dira aurrekontu bateratuak.

N. Azkenik, EAJ-PNVk orain zinegotzi bat gutxiago du. Nork beteko du Pedro Ibarrek utzi duen tokia?

L. J. Zinegotzi ordezkari bat prest dauka. Tramitazioak behar duen denboraren zain gaude toki hori betetzeko.

Luismari Ormaetxea, alkatea eta EAko kidea: "Otsailaren lehen hamabostaldian onarturik izango ditugu aurrekontuak"

NOAUA! EAJ-PNV udal gobernuan barneratuko da. Nola banatuko dira ardurak?

Luismari Ormaetxea. Euzko Alderdi Jeltzaleak Obra eta Zerbitzu, Ongizate eta Giza Eskubide batzordeetako lehendakaritza eskuratuko du. Hezkuntza batzorde berria ere sortzen da Eusko Alkartasuneko zinegotzi bat batzordeburua izango delarik. Tokiko Gobernu Batzarrari dagokionez, EAJ-PNVko bi zinegotzik EAko beste hainbeste ordezkaturiko dituzte. Beste batzorde eta arlo guztiak Eusko Alkartasunaren esku egongo dira, hauek hain zuzen: Hirigintza eta ingurumena, Ogasuna, Antolaketa eta Pertsonalaren kudeaketa, Kultura, kirola eta euskara, Udaltzaingoa, Garapen ekonomiko eta nekazaritza.

N. Akaso, iazko udal aurrekontuen inguruko akordioak argitu al zuen hitzarmen berri honen bidea?

L. O. 2005eko aurrekontua oso oso garrantzitsua izan zen. Oraindik ere zeresanik ematen ari da. Hor dugu adibidez PSE-PSOE-EEren ahalegina Eguzkitza eta Kale Nagusiko obrak paralizatzeko errekurtso kontentzioso administratiboa aurkeztuz,

gobernu delegatuaren eskutik.

Oso garrantzitsua zeren bertan legealdiko obra nagusiak aurreikusten ziren, eta 2006 eta 2007ko aurrekontuak baldintzatuak geratu ziren.

Aurrekontu haiek negoziatzerakoan EAJ-PNVrekin asko, asko hitz egin genuen, eta bi aldeak ahalegin garrantzitsua egin behar izan genuen adostasun batera iristeko. Ahalegin hura orain bere fruitua ematen hasi da: proiektu amankomunak, erlazio normalizatuak, elkarlanerako konpromisoa...

N. Hitzarmena dela eta, udal aurrekontuak aurrera ateratzeko ez da arazorik izango. Noiz onartu daiteke?

L. O. Urtarrilaren 20an 2006ko aurrekontuak aurkeztu ziren Ogasun batzordean. Aurkeztu zen lan egutegiaren arabera, otsailaren lehen hamabostaldian onarturik izango ditugu.

N. Akordioa 2006 urte hasieran iritsi da. Zergatik ez zen legealdi hasieran posible izan? Bi alderdien goi zuzendaritzek zerikirik izan al dute?

L. O. Guri dagokigunez, alderdiko goi zuzendaritzarekiko autonomia dezente daukagu. Ikusirik herriaren onerako zela, ondo enfokaturia eta mugatua zegoela, eta negoziatze prozesua mantso baino sendo joaten ari zela, gure eskuetan utzi dute. Akordioaren sorburua Usurbilen egon da.

Azken hiru urte hauetan egon den aldaketa nabarmenena kudeaketaren egunerokotasunak eman digu. Gai konkretuetaz hitz egitea eta adostasun mailatzeko konturatzeko, zinegotzi ezberdinen lan gaitasunaz konturatzeko, hainbat arlotan herri ikuspegiak bat etortzea, udalaren gobernabilitatearen aurka borrokatzen dutenen aurrean bat egin beharra, herriarentzat oso proiektu garrantzitsuak aurrera atera beharra... Esfortzu garrantzitsua da akordio hau; herria aurretik jarriaz, bakoitzaren anbizio eta helburuen gainetik.

N. 2007ko hauteskundeetan elkarrekin aurkezteko aukera aztertu al da?

L. O. Gai hori ez da apenas hitz egin. Gure helburua da legealdia amaitzeko gertatzen diren hilabeteetan lana, lana eta lana egitea. Izango da denbora hauteskundeetaz pentsatzeko.

Arantxa Manterola, UHLko kidea: "Ona izango litzateke horrelako hitzarmenaren edukiak ere jakinaraztea"

NOAUA! Akordio hau espero al zenuten?

Arantxa Manterola. Ez gaitu harritu. Iazko aurrekontuak elkarrekin onartu zituztenetik sumatzen zen halako adostasun mailaren bat beste hainbat erabaki hartzerakoan.

Galdetu ere izan dugu gobernu hitzarmenik egiteko asmoa ote zuten eta Ormaetxeak ez zuen baztertzen aukera hori. Gure ustetan aurtengo aurrekontuak elkarrekin aztertzerakoan urrats hori eman dute.

N. Hitzarmen hau positiboa izango dela uste al duzu?

A. M. Gauzak, bederen, argiago daude orain zeren, gai zehatz batzuk kenduta, Ugarte baserriarena esaterako, egiaz PNV oposizio zela esatea askotxo ere bada.

N. Hitzarmen hau dela eta, UHLk udalean bizi duen egoera aldatuko dela uste duzu? Udal gobernu berriarekin biltzeko aukera aurreikusi al duzue?

A. M. Nahiko genuke baina ez dugu uste UHLren bazterketa zenik orain artean bi alderdiek bat egitea oztokatzen zuena. EAk eta PNVk jarrera bertsua dute gurekiko: gu legez kanpo egotearekin ados ez daudela esan baina gure ordezkaritza ez dute ez onartzen eta ez errespetatzen. Ez da ahaztu behar bai EA zein PNVk guri dagozkigun bina eserleku okupatzen ari direla eta, guk dakigunez, egoera hori aldatzeko intentziorik ez dute aurreratu. Are, udazkenean bazterketa politikoa gainditzeko eskaera berri- tu genuen mozio baten bidez. Ormaetxeak ez du tratatu nahi izan eta PNVk ere ez du ezer egin egoera antidemokratiko hori konpondu eta 1.200 usurbildarron hitza errespetatzeko. Horrela, zail samarra iruditzen zaigu beraiek aipatzen duten «elkarbizitza normalizatu» berreskuratzea.

N. Gaineratzeko besterik.

A. M. Ona izango litzateke horrelako hitzarmenak iragartzerakoan, gutxienez, edukiak ere jakinaraztea, batez ere, bi

alderdiek talka egiten zuten gaietan (langileen hitzarmena edo aipatutako Ugarte baserriarena, adibidez) zer jarrera izango duten jakiteko. Bestalde, bi alderdien oharrean azaltzen diren hainbat aipamen bitxiak iruditu zaizkigu. Izan ere, ekarpenak egiteko orduan jakintzat ematen dugu talde guztiok era positiboan eta herriaren onerako egiten ditugula, hori bai, bakoitzak bere ideia eta programaren arabera egiten ditu. Horrez gain, «batzuen desprestigio eta haustura ahalegina» esaten dutenean, jarrera paranoiko samarra sumatzen dugu hitz horien atzean. Beste taldeen helburu bakarra eta behinena beren kontra egitea izango balitz bezala baloratzen dute besteon jarrera. Demokrazia hitzetik hortzera erabil ohi duten hauek oposizio hitzak zer esan nahi duen ez ote dakite? Edo, behar bada, beraiek dena ondo egiten dutelakoan, kritika politikoa asumitzen eta onartzen kostatzen egiten zaie? Heldutasun politikoa falta dario jarrera horrek.

Joxean Gorgojo margolaria “Pintura liburu asko irakurri ditut”

Sutegiko erakusketa aretoan topatuko dituzue bere lanik esanguratsuenak

Egun hauetan, Joxean Gorgojoren hainbat pintura topatuko dituzue Sutegiko erakusketa aretoan. Aspaldi hasi zen margotzen, txikitari. Eta hau ez da antolatzen duen lehen erakusketa. Ezta azkena ere. Martxoan Donostiako Danena tabernan erakutsiko ditu bere margoak eta Hernanin eta Tolosan ere erakusketa bana antolatzeko asmoa du.

NOAUA! Noiztik zara margolari?

Joxean Gorgojo. Txikitatik. Edozein tokitan margotzen nuen. Paisaiak, animaliak... Nire kasa hasi nintzen. Pintura liburu asko irakurri ditut eta baita artista askoren ingurukoak ere; Monet eta beste batzuenak. Artista horiek erabiltzen dituzten tekniketari erreparatu dut. Itzalak edo sakonerak nola egin... Pintura asko aztertu dut eta uste dut nire estilo propioa lorzen ari naizela.

Paisaiak nagusi

N. Zeintzuk dira erabiltzen dituzun teknikak?

J. G. Oleo eta pastel teknikak. Pintzel txinatarrarekin ere hasi nahi dut baina oso zaila da. Ez da oleoan margotzea bezala. Txinatarrek bost bat urte behar dituzte teknika menderatzeko. Liburu batzuk eskuratu ditut eta tresna eta produktu denak badituz baina oraindik ez naiz hasi.

N. Zer topatuko du Sutegira hurbiltzen den ikusleak?

J. G. Paisaiak, bereziki. Gehienak Usurbilgoak. NOAUA!ko egutegian ateratako argazki baten gaineko margoa ere egin dut eta jada saldu dut.



JOXEAN GORGOJO, SUTEGIKO ERAKUSKETA ARETOAN.

Baina etxeak ere margotu ditut. Baita baserriak ere: Artzabal, Agerreazpi, Olarrondo...

N. Erakusketan dauden koadroak salgai daude, beraz.

J. G. Salgai daude baina ez Sutegin. Interesa duenak nirekin jarri beharko du harremanetan.

Koadro asko, enkarguz

N. Enkarguak ere jasotzen al dituzu?

J. G. Bai, ia margo gehienak enkarguz egiten ditut.

N. Herrian margolari ezagun asko dago. Besteen lanak jarraitzen al dituzu?

J. G. Bai, eta gustuko dut egiten dutena. Zumetak, esate baterako, aholkuak eman izan dizkit. Etxeen itzalak nola egin azalduz...

**Urtarrilaren 27an
amaituko da erakusketa**

Erakusketa ugari jarri ditu gure protagonistak: Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean, Donostiako Lugaritz kultur etxean, Tolosako Sorron aretoan, hainbat taberna eta dendetan...

Urtarrilaren 27a bitartean, Sutegin topatuko dituzue bere lanik gustukoena. Honako ordu-tegian, arratsaldeko 16:30etik 19:30era.



ADARRA MENDIA, JOXEAN GORGOJOREN BEGIETAN.

Herriko judokak Espainiako txapelketan

Usurbil Judo Taldeko kideek bikain hasi dute urtea. Azken bi asteburuetan senior nahiz junior mailan emaitza onak lortu dituzte herriko taldeko judoek; eta horietako batzuk urtarrilaren 28an eta 29an Madrilen jokatu den senior mailako Espainiako txapelketako azken fasean izango dira. Andoni Aizpurua eta Sergio Montes herritarrek dira horretarako txartela eskuratu dutenetako bi.

Herriko judo taldeak goi mailan lehiatzen jarraitzen du. Azken urteetan Euskadiko klubuen sailkapeneko lehen postua mantentzen dute eta lehiaketa desberdinetan garaipen ugari lortu izan dituzte Esteban Arrillagak zuzenduriko judoek.

Urtarrilaren 15ean senior mailako Espainiako txapelketako azken fasean parte hartu ahal izateko lehiari izan ziren Aragoi, Errioxa, Nafarroa eta Euskadiko judokak Errenteriako kiroldegian eta Usurbil Judo Taldeko 6 judoek lortu zuten urtarrilaren 28 eta 29an Madrilen izateko txartela. Andoni Aizpurua, Egoitz Mora, Iker Lizarribar, Sergio Montes, Oiana Blanco eta M^a Jose Sardon dira asteburu honetan goi mailako lehiaketa horretan parte hartuko

dutenak.

Gizonezkoetan, -60 kg mailan Andoni Aizpurua usurbildarrak lehen postua eskuratu zuen. Lesio baten ostean geldirik egon ondoren duela 3 hilabete inguru itzuli zen entrenamenduetara eta hala ere, iaz bezala, bere kategorian garaipena lortu zuen. -90 kg mailan Egoitz Mora elgoibartarrak 2. postua eskuratuta lortu zuen txartela eta -100 kg-tan Usurbil Judo Elkarteko bi kide izan ziren lehen bi sailkatuak: Iker Lizarribar eta Sergio Montes.

Emakumezkoen artean Oiana Blanco arituko da

Emakumezkoetan, Oiana Blancok azken urteetako nagusitasuna berretsi zuen -48 kg mailan eta iaz Espainiako txapelketan lortutako hirugarren postua gainditzeko moduan izango da. M^a Jose Sardon ere Madrilen izango da +78 kg mailan.

Esteban Arrillaga entrenatzailea gustura zegoen lortutakoarekin. Iaz brontzezko bi dominekin itzuli ziren senior mailakoak Espainiako txapelketatik eta aurten ere aurrean ibiltzeko aukerak ba omen dituzte. *"Iker Lizarribar eta Oiana Blancok iazkoa errepikatu dezakete. Sergio Montes gaztea da oraindik, baina iaz ere parte hartu zuen azken fasean eta esperientzia hartzen ari da. Andoni Aizpurua, berriz, lesio bate-*



SERGIO MONTES ERE MADRILEN IZANGO DA.

tik atera berria da eta ikusiko dugu zer egiteko gai den".

Junior mailan ere bikain

Pasa den urtarrilaren 14an Arrasaten jokatu zen junior mailako Gipuzkoako txapelketan ere emaitza onak lortu zituzten Usurbil Judo Taldeko kideek. Aiora Arrillagak (-52 kg), Maddalen Cardenasek (-57 kg), Uxoia Etxarrik (-63 kg), Nerea Arrutik (-70 kg) eta Ane Perezek (+70 kg) urrezko dominak lortu zituzten eta Ainhoa Otxagabia (-70 kg), Manuel Alfonso (-73 kg) eta Mikel Gamindez (-81 kg) izan ziren brontzezko dominekin konformatu behar izan zutenak.

JOSU ARANBERRI

Andatzpe-Peña Pagola Berria txapelketatik at

Herriko pilota elkarteak ezin izan zuen Berria txapelketako lehen kanporaketa gainditu, 53 eta 47 galdu baituzten Alzako pilotalekuan Aurrera Leitza taldearen aurka. Eñaut eta Imanol Esnaolak 22 eta 10 galdu zuten, Ezeiza eta Iker Zinkunegik 22 eta 15 eta Enrike Huizi eta Asier Arrutik 22 eta 9 irabazi zuten. Bestalde, larunbat honetan Gipuzkoako txapelketako final laurdenak jokatu dituzte Jabier Santxo eta Mikel Landak Donostiako Gaska trinketean egurdiko 13.30etik aurrera.

Bi eskubaloi partida Oiardo kiroldegian

Asteburu honetan bi eskubaloi neurketa jokatu dira Oiardo kiroldegian. 1. territorial mailako taldeak garaipenaren bidea berreskuratu nahiko du Elgoibarren aurka jokatu duten partidari. Aurreko asteburuan 25 eta 22 galdu zuten Urnietan bertako taldearen aurka eta lehen postuetatik aldentzen ari dira. Bestalde, kadete mutilen taldeak Euskalduna Taberna Zarautz taldea izango du aurrez aurre. Bi talde hauek 3. postua izango dute jokoan Oiardon jokatu den neurketan.

Errejonalek Urnietan aurkari larunbatean

Usurbil Futbol Taldeko 1. Errejonial mailako taldeak Zubietan jokatu du larunbat honetan Urnietaren aurka. Pasa den asteburuan 0-0 berdindu zuten Donostian Intxaurren-Danak taldearen aurka. Azken 11 jardunaldietan ez dute partidarik galdu, baina azken sei neurketetan berdinketa lortu dutenez, sailkapeneko 8. postuan kokatuta dira.

2. jubenil mailako taldeak, berriz, Kostkas-Miren Bihotzaren aurka jokatu du Donostian iagoera faseko hirugarren neurketa.

Aholkua !!

Oroimena trebatzea: ez ahaztu oroitzen

Oroimenaren funtzionamendua harrigarria da. Honen garapena eta irudiak atxikitze...

- Egin buruko gimnasia. Garunak jardueran aritu behar du, jardun ezean, garunaren pentsatzeko eta gogoratzeko...

- Trebatu oroimena gauza soilak egiten. Egin gurutzegramak, ikasi buruz...

erosteko gauzen zerrenda, etab.

Ondo elikatutako garuna

- Zaindu odol zirkulazioa. Garuneko kapilaretatik igarotzen den odolak aski oxigeno eta nutriente ez badauka...

- Saihestu itzazu kolesterol kaltegarria duten elikagaiak (gantz saturatuak): arteriak itxi eta, ondorioz, oxigenoa garuneraino heltzea galarazten dute.

Saihestu beharreko etsaiak

- Alkohola. Astean hiru kopa ardo baino gehiago hartzeak oroimena ahuldu eta garuna zaharrarazten digu.



- Tabakoa. Nikotinak odol zirkulazioan eragin kaltegarria izateaz gainera, arreta jartzeko eta gogoratzeko ahalmena urritzen digu.

- Atsedena falta. Egunean zehar ikasi dugunaren asimilazioa loaldian finkatzen dira.

Eguneko goardiako farmaziak. Urtarrilak 26, osteguna; Urtarrilak 27, ostirala; Urtarrilak 28 larunbata; Urtarrilak 29, igandea; Urtarrilak 30, astelehena; Urtarrilak 31, asteartea; Otsailak 1, asteazkena.

Zubieta-Donostia TST autobusak. ASTEGUNETAN; JAI EGUNETAN; LARUNBATETAN.

Autobus ordutegia Donostia-Zarautz. Table with columns: Donostia, Urbil, Usurbil, Zarautz. Includes legend for Larunbat lanegunetan and Soilik larunbata gauetz.

Autobus ordutegia Zarautz-Donostia. Table with columns: Zarautz, Usurbil, Urbil, Donostia. Includes legend for Larunbat lanegunetan and Soilik larunbata gauetz.

EuskoTren ordutegia. Table with columns: Donostia, Usurbil, Zarautz, Zarautz, Usurbil, Donostia. Includes legend for Asteagunetan bakarrik and #Ez da Usurbilen geratzen.

ETXEBIZITZA

- Gazte euskaldun bat naiz eta Usurbilen edo inguruetan, bakarrik edo konpartituta etxe bat alokatuko nuke. 943361229 Joseba.
- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahi-ko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tel: 630 032 779.
- Usurbilen edo inguruetan 3 haur eta 2 helduentzat alokairuan hartzeko pisu bat bilatzen dut pre-miaz. 620 646 769.
- Usurbilen alokairuan etxe bat behar dugu. Ordainketa bermatua. 943365737.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxi bat alokatzen da Etxealdian , 22m2, kotxea erraz sartzen da, 76 euro. Interesatuak deitu arratsalde 943373185 telefonora.
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Garaje itxi bat salgai daukagu Erreka Txiki Kalean. 676636038.
- Garaje bat daukat alokairuan jartzeko Kale Nagusian, 240 eurotan. 100m2takoa da eta kotxea erraz sartzen da. 943 458 284.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Bakeiran snow-ko klaseak eta ikastaroak ematen dira. Alojamentua ere eskaintzen da. Informazio gehiago: 652 651 906 / www.upriding.com webgunea.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientziadun LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrak ematen ditugu euskaraz zein gaztekeraz. Interesatuak: 653711574.
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehenerik ostiralera lan egiteko. 667 694 469.

- Emakume bat eskaintzen da astelehenerik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko. Telefonoa: 626 641 155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbaitetan. 652 757 495.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- DBH 1eko ikasle bati etxean euskeraz klaseak emateko pertsona baten bila gabilta. 650953833
- Pertsona bat behar da etxeko lanak egin eta bi haur zaintzeko. Astelehenerik ostiralera goizeko 7tik, 12ra. Interesatuak deitu 618700479.
- Etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko egun osoz, pertsona baten bila gabilta. 645403905.
- Astelehenerik ostiralera, goizeko 10:00etatik 12:00etara, pertsona heldu bat zaintzeko norbait behar dugu. Interesatuak deitu: 600415541.
- Kontzertuetan, produkzio lanetan aritzeko lan-poltsa osatu nahi da. Tel. 943 393 318.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Graduaturako betaurrekoak galdu ditut, Bordaberri kale inguruan. Aurkitu badituzu NOAUA!ra ekarri mesedez.
- Txakurkumeak oparitzen ditugu. Ama artzai txakurra alemana eta aita ezezaguna baina azkarra. 943366872 (Ander eta Joxe Mari)
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa eta prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Komun kimiko bat eta sukaldea. 1.200km. Prezioa 6.000 e. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosiko nuke. Tlfnoa: 605 72 48 24
- Emuak salgai. Bi emu, arra eta emea modu onean saltzen dira. 657 633 461.
- Itsasoan arrantzan egiteko kainabera behar dut. Ahal bada teleskopikoa. Doan edo merke antzean emateko prest bazaude, gustura hartuko nuke. Tel: 676 37 48 12.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

Agenda !

Urtarrilak 26, osteguna

- 18/98 azuia hizpide Sutegin, 20:00etan. Hizlariak: Xabier Alegria, Aitor Ibero. Hitzaldia gidatuko duten kazetariak: Agurtzane Solaberrieta, Amagoia Mujika.

Urtarrilak 27, ostirala

- Joxean Gorgojoren erakusketa bisitatzeko azken eguna. Sutegin, 16:30-19:30.
- Euskal presoak Euskal Herriratu eta bere estatus politikoa aitortzeko elkarretaratzea, Etxerat'lek deituta, 20:00etan.

Urtarrilak 31, asteartea

- Naturaren Ildotik", Alejandro Tapia pintorearen erakusketa ikusteko azken eguna, Tolosako Aranburu Jauregian.

Otsailak 1, asteazkena

- San Markos mankomunitateko ibilgailua pasako da goizez Usurbildik.

Otsailak 3, ostirala

- Santa Ageda bezpera.

Asteburuko Pilota partidak

Urtarrilak 27, ostirala

- 20.00etan, Aginagako Ariztitzo pilotalekuan. Udaberri Txapelketa.
- 1- Kadete 3. maila. Andatzpe-Peña Pagola (Josu Ostolaza, Iban Arruti eta Haritz Aranburu)-Legazpiko gaztetxea.
- 2- Kadete 1. maila. Andatzpe-Peña Pagola (Esnaola-Esnaola) - Ilunpe2 (Azpeitia).
- 3- Paleta goma 2. maila. Andatzpe-Peña Pagola (Haritz Urdanpileta-Mikel Arroyo)-Ikasberri3 (Azpeitia).

Urtarrilak 28, larunbata

- Donostiako Gaska Trinketea. 13:30ean. Gipuzkoako Txapelketa. Eskuz banaka final laurdenak.
- Andatzpe-Pagola / Hernani 4 (Jabier Santxo)
- Andatzpe-Pagola (Mikel Landa) / Behar Zana (Billabona).

Urtarrilak 28, larunbata

- Gipuzkoako Eskolarteko Pilota Txapelketa. Usurbilen, 16:00etan.
- Denera 6 partidu. Hiru benjamin mailakoak eta beste hiru alebin mailakoak.

Urtarrilak 29, igandea

- Udaberri Txapelketa. 12.00etan herriko pilotalekuan.
- 1- Jubenil 1. maila. Andatzpe-Peña Pagola (Etxeberria-Esnal) - Murumendi (Beasain).
- 2- Nagusiak 1. maila. Andatzpe-Peña Pagola (Xabier Errasti-Mikel Landa) - Anaitasuna2 (Azkoitia).

Txerrimunik ordainetan !

Zorionak Ainara!
Zeinek egin ditu
6 urte orain dela gutxi?
Zorionak Ainara!
Muxu handi bat
etxekoen partez.



Oharrak - Txerrimunik ordainetan doaneko atalak dira

Datorren alea urtarrilaren 27an argitaratuko dugu. Zorion-agurrak urtarrilaren 23a baino lehen ekarri edo bidali.

E-mail: eredakzioa@noaua.com

Posta helbidea: Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20170 Usurbil

Enpresetan euskararen presentzia gehitzeko

Buruntzaldeko Udalek euskara planak ahalik eta enpresa gehienetan jarri nahi dituzte

Buruntzaldeko lan munduan euskara sustatzeko planaren helburua da Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo enpresak euskararen normalizazio prozesura gerturatzeta eta enpresetan euskara planak diseinatu eta sortzen joatea.

Buruntzaldeko Udalek aurreko ikasturtean heldu zioten lan mundua euskalduntzeko bideari. Horretarako, Emun Kooperatibaren zerbitzua kontratatu zuten, aholkularitza lana egin eta euskararen erabilera normalizatzeko plana diseinatu eta abian jar zezan.

Plana garatzeko Jarraipen Batzordea osatu zuten –bertan sindikatuetakoko ordezkariek, Usurbilgo Lanbide Heziketakoko ordezkariek, euskara zerbitzuetako teknikariak eta Euskara Batzordeetako lehendakariak daude– eta lan mundurako proiektua bi zatitan banatu zuten; batetik, komunikazio fasea eta bestetik, sustapen fasea.

Komunikazio fasearen helburua “euskara planen gaia gizarteratzea eta ezagutaraztea” dela adierazi digu Denis Elortza Emuneko teknikariak.

Sustapen fasean, berriz, enpresak bisitatu, euskara planak aurkeztu eta horietan parte hartzera animatu dituzte enpresetako arduradunak.

Lehenengo fruituak

Aurreko ikasturteko komunikazio eta sustapen lanari esker eskualdeko lau enpresak –Andoaingo Latz, Hernaniko Selak eta Usurbilgo S. Izaguirre eta V. Luzuriaga– dagoeneko martxan jarri dute plana. Emuneko teknikariaren iritziz aurrerantzean enpresa gehiagok jarriko du martxan euskara plana.

Aurreko urtea amaitu bitartean Emunek hogeita hamar enpresa bisitatu zituen, eta litekeena da horietako batzuk euskara sustatzeko plana abian jartzea. “Aurreko urtean arrazoi ezberdinak tarteko azken unean atzera bota



JARRAIPEN BATZORDEA SINDIKATUETAKO ORDEZKARIEK, EUSKARA TEKNIKARIEK ETA EUSKARA BATZORDEETAKO LEHENDAKARIEK OSATZEN DUTE.

ziren, baina oraingoan prestutasuna azaldu dute. Hala ere, oraindik ez zenbat izango diren zehazteko dago”, esan digu teknikariak.

Orain arte egindako lanaren inguruko balorazioa eskatuta, honela erantzun digu. “Kopuruarekin geratzen bagara soilik, momentuz ez dira enpresa asko, baina azkeneko hamarkadatarako emai-

tzak ikusita, etorkizuna ez da horren beltza ikusten”.

Euskara planerako arrazoiak

Euskararen presentzia gero eta handiagoa da gizarteko esparru askotan. Elortzaren iritziz lan mundura euskara normalizatzeko plana “oso berandu” iritsi da, baina urratsak ematen hasi direla

Enpresei diru-laguntzak

Euskara planak abian jarri dituzten enpresentzako diru-laguntzak izango dira. Laguntza horiek bi iturritatik jasoko dituzte: Eusko Jaurlaritzatik eta Buruntzaldeko Udaletatik.

Eusko Jaurlaritzak, esate baterako, 2005eko euskara planetarako 54.310 euro esleitzea onartu zuen. Laguntza horiek modu honetan banatu zituen: Berriolari, 2.978 euro; Latzi, 4.804; MSIri, 18.518; Oronari, 10.567; S. Izaguirreri, 4.946; Selaki, 4.577 eta Luzuriagari, 7.920.

Buruntzaldeko Udalek ere diru-laguntzak emateko konpromisoa hartu

dute. Aurreko urtean lau enpresak –Latz, S. Izaguirre, Selak eta Luzuriaga– jasoko dituzte laguntza horiek, eta 2006 urtean gehiago aurreikusi dituzte.

Laguntza hori euskara planaren diseinua eta lehenbiziko urteko inplementazioa finantzatzeko izango da. Plana diseinatzen eta urtebetez gauzatzen enpresak gastatuko duen 2/3 diru-laguntza publikoetatik jasoko duela bermatzen dute Buruntzaldeko Udalek.

Hori horrela izanik, Eusko Jaurlaritzatik jasotzen duen zenbatekotik gatuaren 2/3era iristeko falta dena jarriko dute Buruntzaldeko Udalek, beti ere 3.500 euroko muga kontuan hartuta.

(AURREKO ORRIALDETIK DATOR)

azpimarratu du.

Enpresetako kideek izan dezaketen nahiaz gain, Emuneko teknikariaren ustetan “enpresek arrazoi asko dituzte euskararen erabilera handitzen hasteko” eta horietako batzuk aipatu ditu: “enpresaren irudia hobetzen du, langileen gogobetetzea handitu, zerbitzuari kalitatea eta balioa eransten dio enpresaren erantzukizun sozialari garrantzia ematen dio, Eusko Jaurlaritzak indarrean jarritako legea betetzen da etab.”.

Buruntzaldeko Udalek eta Emunek hasitako bideari segida eman nahi diote, eta besteak beste, enpresetara igortzen duten buletin elektronikoa eta web orria sortu dute.

ERREPORTAJEAREN EGILEA: TXINTXARRI _____
SUSTATZAILEA: BURUNTZALDEKO UDALAK _____



LAN MUNDUA EUSKALDUNTZEKO SINDIKATUEK LAGUNTZA ESKATU DIOTE EUSKO JAURLARITZARI.

Sindikatuaren ekarpena garrantzitsua da

Buruntzaldeko lan mundua euskalduntzeko planari jarraipena emateko sortu zen batzordean CCOO, ELA, LAB eta UGT sindikatuak parte hartzen dute, sindikatu horiek eta enpresetako ordezkari sindikalek euskara planen berri zuzenagoa izan dezaten.

Lan munduan euskara txertatzeko egiten ari diren ahaleginetan sindikatuaren ekarpena garrantzitsua izan daiteke. Horren harira, sindikatuaren inplikazioa sustatzeko Buruntzaldeko Udalek Emunen bidez hainbat ikastaro antolatu dituzte sindikatuaren egiturentzako eta enpresetako ordezkari sindikalentzako. Ikastaro horietan euskara planen inguruko azalpenak jasotzen dituzte, eta besteak beste, sindikatuaren erantzukizuna zerbatekoa den argitzen da.

Mikel Arruti, Latzeko langilea

“Hizkuntza ohiturak aldatzen hasi gara”

Sei bat hilabete baino ez dira pasa Latz enpresak euskara plana abian jarri zuenetik, eta Mikel Arrutiren iritziz lantokian gauzak aldatzen hasi dira. Euskararekiko sentsibilizazioa piztu dela dio, eta beharrezkoa izateaz gain, hartu duten erabakia oso positibotzat jo du.

Zertan antzeman da euskara planaren eragina?

Bi hizkuntzetan mintzatzeko ohitura zuen langileari, euskararekiko sentsibilitatea piztu zaio eta euskaraz soilik egitera pasa diren batzuk antzeman ditut.

Planean sartu aurretik ikusten al zenuen euskara planaren beharrik?

Bai. Euskararen presentzia ahozkoa bakarrik eta era informalean zen. Dokumentazioa eta idatzizko komunikazioa gazteleraz jasotzen genuen, langilegoaren 3tik 2 baino gehiago euskalduna izanda ere.

Hemendik aurrera lantokian euskara gehiago erabiliko dela iruditzen zaizu?

Euskaldun zahar askoren arteko hartu-eman gazteleraz da, eta jende asko euskaldun peto-petoa izanik gazteleraz komunikatzen da lankideekin. Euskara planarekin langile horiek bere artean euskaraz egitea lortuko bagenu, oinarritzko helburua behintzat lortuko genuke. Pena da hainbeste euskaldunen artean gaztelera hainbeste entzutea. Latzeko plantila nahiko gaztea da, eta gure jenerazioko langile askok ikasketa guztiak euskaraz egiteko aukera izan dugu eta lan mundura salto egitean gaztelera hutsean funtzionatzen duen mundu batean sartu gara. Nire ustez gure jenerazioko jendeak euskara lan munduan sartzeko ahalegina egin beharko genuke, eta gure eguneroko hizkuntza lanean ere erabili.

Enrique Fernandez de Muniain, Selakeko kudeatzailea

“Behin-betiko aurrerapausoa izango da”

Selak enpresako gerentearentzat euskara plana abian jartzea Surrats naturala izan da, “ezinbestean eman beharrekoa”. Hiru urtetan egitea adostu dute eta Eusko Jaurlaritzaren eta Hernaniko Udalaren laguntza jasoko dute.

Zergatik erabaki zenuten euskara plana onartzea?

Azkeneko bi urtetan euskararen aldeko zenbait urrats emanak genituen. Ekarpentxiak ziren, eta zerbait serioagoa egiteko garaia zela erabaki genuen.

Euskara planean bete-betean sartu aurretik Selakeko hizkuntza egoeraren diagnosia egin zenuten, ezta?

Diagnosiaren helburua enpresaren hizkuntza egoera ezagutzeko zen. Eta aipagarria izan da langileon erantzuna; partehartzea oso altua izan da eta agerian utzi dute planean txertatzeko daukaten prestutasuna. Bestalde, langileen artean euskararen erabilera eta ezagutza oso baxuak direla egiaztatu dugu. Datu horiek, ordea, planarekin hasteko erabakia berretsi dute.

Epe laburrera zein helburu markatu dituzue?

Euskararen presentzia indartu nahi dugu, eta horretarako zuta-beak jartzea da lehen urratsa. Irizpideak zehaztu, motibazioa sustatu, batzorde bat osatu dugu jarraipena egingo duena eta laguntza eskainiko duena.

Euskara planak ekonomikoki nolako eragina izango du?

Hiru urteko epean karga ekonomikoa ez da handia; hala ere, euskararen kasuan, neurgailu ekonomikoak alde batera utzi behar ditugula pentsatzen dugu. Hala ere, Eusko Jaurlaritzatik eta Hernaniko Udaletik jasotzen ditugun laguntzak eramangarriagoa egiten dute plana.

UDARRREGI



PARTAIDE
IKASTOLAK

IKASTOLA



2-16 Urte bitarte:

- D eredua
- Ingelesa 4 urtefik aurrera
- Orientazio zerbitzua
- Informazio eta komunikazio teknologiak
- Jangela
- Garraioa
- Eskolaz kanpoko jarduerak



MATRIKULAZIO EPEA:

Otsailak 6tik 17ra (biak barne)

**Dei ezazu telefono zenbaki honetara:
tel.: 943 36 12 16 Faxa: 943 36 37 43
usurbil@ikastola.net**